PRESKRIPZIO TENIKOEN PLEGU-AGIRIA

ZERBITZU KONTRATUA

KONTRATAZIOA: PROZEDURA IREKIA

AHOLKULARITZA TEKNIKOA INDARTZEN + PROGRAMAK GAUZATZEKO

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Zerbitzuaren beharra eta xedea
3. Objektua
4. Kontratuaren iraupena eta exekuzioa: lan saioak egiteko epeak, egutegia eta azken memoria
5. Genero ikuspegia
6. Zerbitzua gauzatzeko jarraibideak

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

1. SARRERA

45 urtetik gorako pertsonek edota emakumeek askotan zaila ikusten dute lan merkatuan berriz txertatzeko aukera, duten adinarengatik, emakumeak direlako edota lan munduak eskatzen dien eginkizunetara egokitzeko birziklatu behar dutelako.

Errealitate horiek guztiek desoreka sortzen dute pertsonarengan, eta lan merkatuak dituen eskakizunei erantzuteko, nahiz bakoitzaren lan ibilbideak koherentzia izateko, ezinbestean eskatzen dute lanketa sakon bat.

Egoera horren aurrean, lan munduan barneratzeko eta, batez ere, bertan mantendu ahal izateko, aktibazioa eragin behar da eta ikuspegi integral batetik eraldaketa prozesua landu.

Horretan datza hain zuzen ere kontratu honetan eskatzen den lanketa: programa-saioen bidez aldaketarako indartzea.

2. ZERBITZUAREN BEHARRA ETA HELBURUA

Helburu nagusia: Talde nahiz banakako saioen bidez, pertsonak aldaketarako indartzea, hobekuntzarako bidea irekitzea eta bakoitzarekiko eta munduarekiko begirada aldatzea, lan ibilbidea indarrez ekiteko.

Azpi helburuak:

- Aldaketarako irekitzea
- Bakoitzaren benetako indarguneekin konektatzea
- Norberaren baliabideak identifikatzea
- Bakoitzarekiko eta munduarekiko begirada aldatzea
- Bakoitzak bizkar gainean dituen zamak eta oztopoak identifikatzea eta horiek kudeatzea

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Esplorazio esparru berrietara irekitzea
- Bizitzako baliabide berriak aurkitzea
- Bakoitzaren lan helburua argitzea
- Lan mundura bideratzeko erreminta nahikoak eskuratzea
- Hobekuntza profesionalerako ekintza plana irudikatzea

Horrek guztiak lagunduko du:

- Lan munduan txertatzeko, pertsonei indartzeko aukera ematen
- Garapen pertsonala eta profesionala ahalbidetzen
- Hazkuntzarako bideak irekitzen
- Pentsatzeko eta jarduteko modu berritzaileak eskura izaten

3. OBJEKTUA

Esku-hartze integrala egingo da. Alderdi psiko-emozionala landuko da lan merkatuan sartzeko baliagarriak izango diren konpetentziak bereganatzeko.

45 urte edota gorakoak (45+ Indartzen), batetik, eta emakumeak (Ema+ Indartzen), bestetik, eta horien artean, batez ere, lan mundura txertatzeko zailtasunak dituztenak, izango dira hartzaileak.

Kontratuaren objektua, urtean bi ekimen aurrera eramatea izango da:

1. **45 urtetik gorako pertsonekin** taldekako aurrez aurreko saioak egitea, eta, bakarkako saioak (online/aurrez aurre) eskaintzea, pertsona bakoitzaren aldaketarako eta hobekuntzarako bideak eraikitzeko eta lan mundura indarrez bideratzeko.
2. **Emakumeekin** taldekako aurrez aurreko saioak egitea, eta, bakarkako saioak (online/aurrez) eskaintzea, pertsona bakoitzaren aldaketarako eta hobekuntzarako bideak eraikitzeko eta lan mundura indarrez bideratzeko.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Zehazki hauek dira eskatzen diren egitekoak:

- 45 urte edo gorako pertsonen taldeari saioak ematea. Guztira **107,5** ordu aurreikusten dira
    - 40 ordu talde ekintza (egun bakoitzean 4 ordu, 2 aste)
    - 45 banakako ordu, (3 ordu pertsona bakoitzeko * 15 pertsona -lortuko balira-).
    - 22,5 ordu programaren prestaketarako

- Emakume taldeari saioak ematea. Guztira **107,5** ordu aurreikusten dira
    - 40 ordu talde ekintza (egun bakoitzean 4 ordu, 2 aste)
    - 45 banakako ordu, (3 ordu pertsona bakoitzeko * 15 pertsona -lortuko balira-).
    - 22,5 ordu programaren prestaketarako

Guztira 215 ordu, gutxienez

Kontratu hau baldintzatua dago honako gertakari hauetara:

Batetik, taldeko prestakuntza saioetan gutxieneko partehartzaile kopuru bat izatera. Talde bakoitzeko, gehienez, 15 parte-hartzaile eta, gutxienez, 5 partaide lortu beharko dira saioak aurrera eraman ahal izateko. **Ez badira pertsona nahikoa erakartzen taldea osatzeko, ekimena bertan behera geratuko da**, harik eta, Udal Elkarteak beste data batzuetan egiteko aukera ikusten ez badu.

Bestetik, bakarkako saioetara pertsona interesduna agertzera.

Dena den, pertsona agertzen edo konektatzen ez bada, baina, esleipena jaso duen enpresak bertan, zain eta prest, egon dela egiaztatzen badu, saioaren erdia kobratuko du. Horretarako, unean bertan emaila bidali beharko dio proiektu arduradunari, hasieran eta amaieran, pantaila irudi batzuk atxikituz, bertan zain egotearen frogak helaraziz: lanpoltsa@urolakosta.eus

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Azkenik, esleipena jaso duen enpresa, bakarkako saiora agertzen ez bada, kontratuak indarrean jarraitu arren, ez ditu ordu horiek kobratuko.

4.-KONTRATUAREN IRAUPENA ETA EXEKUZIOA: LAN SAIOAK EGITEKO EPEAK , EGUTEGIA ETA AZKEN MEMORIA

KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EPEA urte batekoa (1) izango da. Dena den, luzatu ahal izango da, urtez-urtez (1+1+1+1), gehienez ere bost urte baino gehiago ezingo duelarik iraun guztira. Epea kontratua sinatzean hasiko da.

KONTRATUAREN EXEKUZIOAri dagokionez, urtean 2 ekimen egingo dira. Beraz, gehienez, 10 ekimen bost urtetan zehar, kontratua urtez urte luzatuz gero.

Hauek dira bi ekimenak:

Lehen ekimena (1): 45+ indartzen taldea

- Taldekako saioak (aurrez aurre): 10 egun
- Bakarkako1(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa hasi baino lehen
- Bakarkako2(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa amaitu bezain pronto.
- Bakarkako3(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa amaitu eta hilabetera.

Bigarren ekimena (2): Ema+ indartzen taldea

- Taldekako saioak: 10 egun
- Bakarkako1(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa hasi baina lehen.
- Bakarkako2(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa amaitu bezain pronto

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Bakarkako3(online edo aurrez aurre): erabiltzaile bakoitzarekin ordubete. Talde saioa amaitu eta hilabetera.

EGUTEGIAren egun edo data zehatzak Urola Kostako Udal Elkartearekin adostuko dira.

Aurrez aurreko saioen kasurako, 4 ordu izango dira egunero (9:30-13:30) Udal Elkarteko egoitza nagusian (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz).

AZKEN MEMORIA EDO AMAIERAKO TXOSTENA: Pertsona / enpresa kontratistak, urtebeteko epealdi bakoitzean eta baita, kontratua amaitzean edo baita kontratuaren azken epean, egindako lana islatzen duen memoria bat entregatuko du eta proiektu/kontratu arduradunaren oniritzia jasotzeran, UKUEri aurkeztu eta UKUEri entregatu beharko dio.

Amaierako txostenean ondorengoak azalduko dira:

- Lortutako emaitzak
- Talde/banakako partaideen jarraipen txostena egin eta bakoitzaren aurrera begirako aurrerapauso aukerak azaldu
- Ekimenaren eta pertsonen balorazioa
- Eranskinak (euskarriak, irudiak, tresna …)
- Bakarkako saioak aurrera eraman direla egiaztatzeko saioen iraupenaren eta parte-hartzaileen erregistroa

5.- GENERO IKUSPEGIA

Materialetan erabiliko diren testu eta irudietan berdintasuna kontuan hartuko da. Horretarako, Udal Elkartearen oniritzia jaso beharko dute irudi naiz erabilitako testuek.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

6.- ZERBITZUA GAUZATZEKO JARRAIBIDEAK

Kontratua burutzeko epean zehar esleipena jaso duen enpresa eta Udal Elkartea harremanetan egongo dira etengabe eta behar adina lan bilera eta lan saio egingo dituzte. Halaber, esleipena jaso duen enpresak kontratatutako zerbitzuaren egoera eta gorabeheren inguruko informazioa aurkeztu beharko ditu, Udal Elkarteak eskatzen dionaren arabera.

Esleipena jaso duen enpresaren betebeharra izango da parte-hartzaileen datuen gaineko sekretua zaintzea, datu horien izaera konfidentziala aintzat hartuta. Enpresak Udal Elkarteari eta eraginda ikusi diren pertsonei kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke, hala gertatuz gero.

Esleipena jaso duen enpresak kontratu honen xede den prestakuntza eta bakarkako saioak eskainiko ditu, proiektuaren ardura duen Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariaren zuzendaritzapean. Egitasmoa aurrera joan ahala, edukiak parte-hartzaileen beharretara egokitzeko aukera egongo da.

Bestalde, kontratatutako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, esleipena jaso duen enpresako kidea(k), beranduenez, ikastaroa hasi baino 10 minutu lehenago egongo da/dira egoitzan eta; saioak on-line izango balira, saioa hasi baino 5 minutu lehenago egongo da konektatuta.

Proiektua diruz laguntzen duen erakunderik balego, horiek aipatuko dira esleipena jaso duen enpresak sortzen dituen euskarrietan.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • idazkaritza@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus